

90 produktu baino gehiagoren bilgarriak berrikusi ditu

**EROSKI-K 50 TONA PLASTIKO BAINO GEHIAGO
KENDU DITU 2019AN BERE MARKAKO ONTZIEN
EKODISEINUARI ESKER**

- **Besteren artean, ontziak kendu edo arindu ditu bere produktuetatik, ingurumena gehiago errespetatzen duten beste material batzuekin ordezkatzuz eta gehiegizko bilgarriak kenduz**
- **Helburua da pixkanaka ontzi guztiak berrikustea eta guzti-guztien ekodiseinuak garatzea 2025erako; hala, ingurumen irizpideak beteko dituzte, eta birziklagarriak izango dira eta plastiko gutxiago erabiliko da**
- **Aste honetan, Basque Ecodesign Meetingen parte hartzen ari da EROSKI, eta bertan azalduko ditu nolako aurrerapenak egin dituen bere produktuetako batzuen ontziak ekodiseinatzen**

Elorrio, 2020ko otsailaren 28a.- [EROSKI](#) aurrera doa elikadura osasungarria sustatzeko konpromisoan, eta 2019an, pauso bat gehiago eman du bere markako ontzien eta bilgarrien ekodiseinuan. Iaz, marka propioko 90 ontzi baino gehiago berrikusi zituen, eta 50 tonatan murriztu zuen urtean erabiltzen duen plastiko konbentzionala. Besteren artean, ontziak kendu edo arindu egin ditu, ingurumena gehiago errespetatzen duten beste material batzuekin ordezkatu ditu, eta gehiegizko bilgarriak kendu ditu.

"Gure helburua da marka propioko ontzi guzti-guztiak ingurumen irizpideetatik berrikustea eta guztiak ere birziklagarriak izatea eta merkaturatutako plastiko tonak %20 murriztea", esan du EROSKIren Osasun eta Jasangarritasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak. "Urte batzuk dira zeregin honetan hasi ginela, eta oraindik asko dugu egiteko".

2019an, besteak beste honako hobekuntza hauek egin dira: EROSKI Natur markako fruta erreferentzia batzuei ontzia kendu pisura saltzeko, eta jatorri fosila duten plastikozko ontziak ordezkatu jatorri berriztagarria duten beste batzuekin. Jatorri berriztagarria dutenei dagokienez, neurrietako batzuk dira erabilera bakarreko plastikoak FSC® zigilua duten paperezkoekin ordezkatzeko, NATUR markako frutetan eta berduretan plastikozko erretiluak zigilu bera duten kartoizkoekin ordezkatzeko, Belle kosmetikan erabiltzen diren plastikozko ontziak kartoizko estutxeekin ordezkatzeko eta Galizian eta Balearretan esne brika ordezkatzeko *Ecoplus* izeneko ontzi jasangarriarekin.

Plastiko birjina ere ordezkatu egin dugu marka propioko ontzietan eta erretiluetan birziklatutako materialarekin; hori egin dugu, besteak beste, ordainlekuko poltsekin eta haragiaren eta arrainaren erretiluekin, opilgintzako erretiluekin eta SeleQtia

markako zukuekin. Horretaz gainera, gehiegizko ontziak kendu ditugu zenbait produktutatik; adibidez marmeladen estalkietatik.

Neurri horietaz gain, beste asko hartu ditugu iaz; hala nola ordainlekuko poltsak aldatzea, berrerabilera indartzea harategian eta arrandegian taperraren erabilera sustatuta eta frutategian sareak ezarrita.

Basque Ecodesign Meetingera joan gara

EROSKIk 2019an ekodiseinatu dituen produktuen artean daude aste honetan [Basque Ecodesign Meetingen](#) aurkeztu ditugunak, zeina Bilboko Euskalduna Jauregian antolatzen baitute.

Basque Ecodesign Meetingen jardunaldietan, EROSKI partaide izan da elikaduraren arloa landu duen mahai inguru batean, "20 años de ecodiseño made in Euskadi" izenekoa, Elikaduraren Klusterrak eta AZTIk koordinatua, non azaldu baitu EROSKI Natur markak zapore arduratsuarekin hitzeman duena: produktu freskoen ekoizpen jasangarriagoa bermatzea arrantza arloko MSC eta GlobalG.A.P zigiluekin, eta era berean bere ontziek ingurumenean duten inpaktua gutxitzea.

EROSKI [Basque Ecodesign Center](#)-eko bazkidea da; Eusko Jaurlaritzaren ekimen bat da hori, sektore askotako enpresak batzen dituen, eta asmoa da haien produktuen eta ontzien berrikuspena sustatzea ingurumen arloko irizpideak erabilita, dela ekonomia zirkularrean oinarrituz eta dela bizi zikloaren perspektiban oinarrituz.

Ingurumenarekiko errespetua

EROSKIk konpromiso sendoa du ingurumena errespetatzeko, eta ekimen askotarikoak lantzen ditu bere jarduerak inguru hurbilean duen eragina murrizteko. Produktu jasangarriagoak merkaturatzea, ontzien eta bilgarrien ekodiseinua lantzea, baliabideak modu jasangarrian erabiltzea, ingurumenaren gaineko arrastoa murriztea, hondakinak ekonomia zirkularren ereduarekin kudeatzea, bioaniztasuna zaintzea... Horiek guztiak betebeharrak dira EROSKIrentzat, eta halaxe jaso ditu [Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko Konpromisoetan](#).